

NAFARROAN ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALERAKO OINARRIAK

Dekalogo aurrerakoia, ezkerrekoa eta abertzalea

- 1- **Euskal Herria** historian zehar berezko nortasuna eta bere etorkizunaren jabe izateko borondatea iraunkorki berretsi duen **nazioa da**. Nafarroa Garaia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Behea eta Zuberoarekin batera, Euskal Herria izeneko lotura sozial, linguistiko, historiko, ekonomiko eta kulturala duen errealitate baten parte da.
- 2- Egungo **ordenamendu juridiko-politikoak** Nafarroako herritarren erabakitzeo eskubidea mugatu eta bere garapen askea eragozten du. Foru Hobekuntza bere negoziazioan abertzaleak kontzienteki baztertu eta herriaren berrespen ezagatik lastatutako araua da. Ondorioz, gabezi politiko eta demokratiko larriak ditu, aldaketa politiko eta instituzional esanguratsua beharrezkoa da herritarrek askatasunez beren izaera politiko eta garapen ekonomiko, sozial eta kulturala ezar dezaten. Proiektu politiko guztiak (autonomista, federalista eta independentista) baldintza berdinetan defendatu ahal izatea beharrezkoa da, bai eta herritarren gehiengoak hala nahi badu egikaritzea, biolentzia eta kanpo injerentziarik gabe, bide baketsu, politiko eta demokratikoetatik soilik eta pertsona ororen giza eskubideen errespetutik. Aldi berean, bizitza instituzionalaren sakontze demokratikoa ezinbestekoa da. Instituzioek herritarren parte hartzeari ateak zabaltzea behar dizkiete.
- 3- **Euskara** herrialdeko hizkuntza nazionala da eta Nafarroako berezko nortasunaren elementu eta etorkizuneko belaunaldietarako ondare kultural eta munduko kulturari ekarpena. Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna onartzea eta herritar guztien hizkuntza eskubideak, norbanakoak zein kolektiboak, bermatuko dituen araudi berria martxan jartzea beharrezkoa da. Belaunaldi berrien, administrazioa eta zerbitzu publikoen euskalduntzea eta euskararen erabilaren normalkuntza (hedabideak, lan mundua eta saltokiak...) ekarriko duen araudia.
- 4- Egungo egoera ekonomikoak bere ondorio eta baldintza latzenak langile eta jendarteko sektore ahulenen gainean kokatzen dituen sistema injustu baten kontraesanak eta menpekotasunak areagotu ditu. Lana eta aberastasunaren banaketan oinarritutako bestelako **eredu ekonomiko eta sozial** justu, solidario eta demokratikoa ezinbestekoa da, bai eta erabakiak hemen eta bertako beharren, egoera sozial, ekonomiko eta laboralaren arabera hartzea bermatuko lukeen lan harremanetarako berezko esparruaren artikulazioa. Sektore publikoa, garapen ekonomiko eta sozialaren motore gisa indartzearen aldekoak gara, baita zerga sistemaren erreforma sakona egitearen aldekoak, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko inbertsio soziala nabarmenki handitzea, lehen sektorea, bertako enpresa-ekimena eta langileen prestakuntzaren indartzearen aldekoak, gizon eta emakumeen arteko berdintasun osoa eta errealia eta etxeko lan eta zaintzaren onarpen publikoa bermatzearen aldekoak eta alokairuzko etxebizitza publikoaren babes eta sustapenaren aldekoak.
- 5- Naturaren eta herrialdearen erabilera arrazoizko eta zentzudunaren defentsa, herritarrek bizitza osasuntsurako duten eskubide kolektiboa da. Irizpide sozial eta ekologikoak ardatz izanzen dituen **garapen iraunkorraren** eredian sinesten dugu. Eredu bat non informazioa, eztabaida eta parte hartzea irekia, publikoa eta gardena izanzen den eta zeinean kaltetutako herri eta erakundearen erabakiak aintzat hartuko diren. Benetako behar sozialei erantzuneko dieten eta Nafarroarentzat orekatutako garapen eredu berriaren oinarri izango diren plan energetikoen osaketa beharrezkoa da, bai garraio eta mugikortasun arloan bai hondakinen zein uraren kudeaketari (plan hidrologikoa) dagokionean ere.

- 6- Nafarroak **osasan-sistema** publiko bideragarri, zuzen eta kalitatezkoa behar du. Horretarako azken urteotako kudeaketa politikoaren norabidea aldatzea, joera pribatizatzailea zuzentzea eta murrizketak etetea beharrezkoa da. Lehen mailako osasan-arreta egokiro eta nahikotasunez garatzea, Osasan Publikoaren Sistemak dituen politikan parte hartze komunitariorako elementuak artikulatu eta OPSren politika eta jarduerak osasunaren sustapena, gaixotasunaren prebentziora eta ikerketaren sustapenera norabidetzea. Herritar guztiek osasunerako (bere dimentsio osoan) eskubidea dute, baita osasun sexual eta erreproduktiborako, elikadura-osasunerako, lan-osasunerako, ingurune-osasunerako, etab.
- 7- **Hezkuntza** mailan Nafarroako aniztasuna errespetatu eta berezko euskal kurrikulumean oinarritutako sistema publiko, parte hartzaile, laiko eta kalitatezkoaren aldekoak gara. Ikastetxe pribatu batzuek dituzten egoera pribilegiatuak aldatu eta hezkuntza publikoa hezkuntzaren bizkarrezurrean bilakatu behar dugu, era berean hezkuntza eragileen parte hartzea sustatu behar dugu. Kalitatea zerbitzua, ratio, prestazio, baliabide pertsonal eta materialen nahikotasun eta egokieraren arabera neurtu behar da, beti ere langile zein ikasleen lan-eskubideen errespetutik. Hezkuntza sistemak etapa guztietan ikaslearen euskalduntzea bermatu behar du, unibertsitatea, lanbide-heziketa eta hezkuntza ez formala barne.
- 8- **Emakumeek** beren bizitza askatasunean eta eskubide berdintasunean antolatzeko duten eskubidea bermatu beharra dago bai juridikoki bai sozialki ere, familia edo familia batasunak ez du oztopo izan behar jendarteko edozein arlotan emakumeen parte hartze aktiborako; edozein arlotako objektu eta subjektu izateko; bizitzako fase ezberdinen ezaugarriak aintzat hartuz duintasunez bizitzeko; emakume izanagatik inongo indarkeriarik ez pairatzeko; eredu heterosexista gaindituz eta gizonezkoekin batera harreman afektiboak askatasunez gauzatzeko; beraien sexualitatea dena delakoa izanda ere askasunez bizitzeko; beraien gorputzen inguruan aske erabakitzeko; lan duina izateko; etxeko-lanen eta zaintza lanen ardura berain bizkar ez jasotzeko; beraien izatea desagerrarazi eta baztertuko ez dituen hizkuntza erabili eta garatzeko.
- 9- Denen artean, etorkinak barne noski, herri bezala dagozkigun eskubide politiko, ekonomiko eta kulturalak lortu eta erabili behar ditugu. Burujabeak izan behar dugu gure **politika migratzaile eta aniztasunekoa** garatu ahal izateko, Euskal Herrian bizi den pertsona oro herritartasun eskubidearen eta eskubide politikoen jabe dela aintzat hartuz. Nafarroak bere egoera sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalaren azterketa sakona behar du, elkarbizitza eta jendarte barneratzaile eta barneratuaren garrantzia oinarritzkoa delarik. Herriz herriko diagnostikoen osaketa eta esku-hartze plana diseinatzea ezinbestekoa da.
- 10- **Gazteria** gure herriaren etorkizuna da. Egungo errealitate sozial eta instituzionalak sektore sozial honen iritzia baztertzen du. Gazteek iritzia eman eta erabakiak modu askean hartzeko duten eskubidea defendatzen dugu. Bizitza sozial eta instituzionalaren alderdi guztietan parte hartzeko eskubidea dute, bere iritzia eman eta erabakietan parte hartzeko eskubidea. Bere indarra, konpromiso eraldatzailea, ekimen sortzaile eta eraikitzaileak sustatzeko gaitasuna eta antolakuntza maila presente dagoen eremu guztietatik jendartearen etengabeko eraldaketarako aktibo da.